

SALUDO A EUROPA

Nuestra recién nacida Academia se enfrenta a unos acontecimientos de enorme trascendencia no solamente en el terreno cultural y humano sino de forma muy especial en el mundo del Derecho. La ampliación de la Unión europea a veinticinco países y la aprobación de la Constitución para Europa convulsionan nuestros conocimientos jurídicos. Hasta hoy cuando visitamos nuestras librerías e incluso las bibliotecas, el Derecho europeo es el gran ausente. Un jurista podía y puede aún vivir en España sin asomarse al Derecho que la Comunidad viene elaborando, cada día a mayor ritmo, en sus diversos órganos institucionales. Los casi cuarenta años que España vivió totalmente al margen de Europa quizá sean la causa de nuestro alejamiento. Se ha creado un vacío que hay que colmar con urgencia y la Academia está obligada a colaborar en esta tarea.

La situación cambia rápidamente y nos apremia a salvar las lagunas con urgencia. En los últimos años el comercio europeo ha crecido cada día con más intensidad, e incluso las relaciones personales, el matrimonio, la filiación o la herencia se entremezclan cada día con elementos internacionales sobre todo europeos.

Los dos acontecimientos que hemos indicado van a acelerar mucho más nuestras relaciones comunes. Podemos estar a favor o en contra de la Constitución europea, pero una cosa es cierta: a los hombres de leyes nos va a ser cada día más difícil

encerrarnos en nuestro pequeño territorio doméstico. En primer lugar porque Europa tiene ya una importante función legislativa y en segundo, porque la intensificación de las relaciones personales, comerciales o industriales con elementos de distintos países europeos, nos va a obligar a acudir a la común normativa europea para muchos de nuestros problemas.

Se apruebe o no la Constitución, la marcha hacia una Comunidad europea es imparable. El artículo I-1 del proyecto dice que la Constitución nace de la voluntad de los ciudadanos y los Estados de Europa de construir un futuro común. Un futuro común significa ante todo un futuro en paz, significa romper con lo peor de nuestro pasado que es una continua sucesión de conflictos y guerras, que ha alimentado durante muchos años formas xenóforas de nacionalismo que solamente unidos podemos superar.

Significa también que los valores que han inspirado el ideario europeo en los últimos siglos, valores, dice el preámbulo, que nacen de “nuestra herencia cultural, religiosa y humanista” nos empeñemos en realizarlos en todo el territorio europeo. Y no olvidemos que según el mismo preámbulo, estos valores se reflejan “en los derechos inviolables e inalienables de la persona humana, la democracia, la igualdad, la libertad y el Estado de derecho”.

Aunque es cierto que estos valores son universales, también son el fruto de varios siglos de cultura europea, y solamente en Europa se han hecho grandes esfuerzos para convertirlos en hechos reales. Fueron europeos los que, a la salida de la II Guerra mundial elaboraron la Declaración Universal de Derechos. Y también quienes, no conformes con su mera formulación teórica, se unieron en 1950 en un esfuerzo para que los derechos humanos fueran respetados, y quienes luego crearon el Tribunal de Estrasburgo para perseguir en todos los países adheridos, las vulneraciones de dichos derechos. Ellos también formularon la primera declaración condenando la pena de muerte.

También es cierto que Europa nació siendo un gran mercado, pero esto no es un vicio de origen. Si no se hubiera avanza-

do en el terreno económico dando a los países fundadores una prosperidad sin parangón, no hubiera sido posible dar los pasos siguientes. Y junto a los derechos humanos a los que la Constitución dedica su parte segunda, la Comunidad, el Mercado europeo y ahora la Unión revelan claramente el propósito de mantener un desarrollo sostenido, un nivel de bienestar, sin olvidar el respeto a los derechos que exige la justicia social. En una palabra, se propone consolidar las bases que pueden hacer una Europa en paz.

No se predica una utopía, no hay un paraíso en la tierra y la Unión europea no terminará con nuestros problemas, pero hay una larga historia en la que los europeos nos teníamos unos a otros mucho más como enemigos que como aliados; y ahora la Unión nos llama a trabajar juntos en una labor de hermandad en la que el papel de los juristas es determinante. Sin el mundo del Derecho no se puede construir la paz ni la justicia.

No podemos ser indiferentes a esta ilusionante situación y la Academia quiere anunciar que promoverá por todos los medios a su alcance el conocimiento de las instituciones y el Derecho europeo. La industria y los puertos del País Vasco siempre han estado abiertos al mundo y nuestros mejores hombres se esforzaron por alentar el acercamiento a Europa. *Muchos de nosotros no podemos olvidar a José Miguel Azaola, que se proclamó paneuropeo al terminar su bachillerato en los años treinta, y desde entonces dedicó lo mejor de su vida a esta idea. A muchos nos hizo amar la idea de una Europa unida y en paz.*

La Junta Directiva

AGUR, EUROPA

Gure Akademia jaioberriak garrantzi handiko gertaerei egin beharko die aurre; gertaerok erabakigarriak izango dira, kulturaren eta gizakiaren esparruetan, eta, bereziki, zuzenbidearen munduan. Europar Batasunak, dagoeneko, hogeita bost estatu barneratzen ditu, eta Europarentzako Konstituzioa onesteko dago. Bi gertaera horiek izugarritzko eragina izango dute guztion jakite juridikoetan. Gure egunok arte, liburudenda eta biblioteketara bisita egin izan dugunean, Europako zuzenbidea ez da inondik inora ageriko izan. Legelaria Espainian bizi zitekeen, eta oraindik bizi daiteke, Batasuna bultzatzen ari den zuzenbidea ezagutu gabe, nahiz eta Batasuneko erakunde desberdinek gero eta arau gehiago aldarrikatu. Espainia berrogei urte luzetan bizi izan da Europatik guztiz baztertuta, eta, beharbada, horixe da Europatik aldentuta egotearen arrazoia. Hutsunea sortu da, eta hutsune hori presaz bete beharra dago. Akademiak, zeregin horretan, badu zer esanik.

Egoerak azkar-azkar aldatzen dira, eta ezinbestekoa da guretzat hutsuneak ahalik arinen betetzea. Azken urteetan, Europako merkataritza indartu egin da oso, egunetik egunera. Horrela, gizabanakoen arteko harremanak (ezkontza, seme-alabatasuna, oinordetza...) nazioarteko osagaiekin nahasten hasi dira, batik bat, Europako osagaiekin.

Aipatu bi gertaerek azkartu egingo dituzte, oraindik gehiago, gure harreman erkideak. Europako Konstituzioaren alde edo

kontra egon gaitezke, baina bada zerbait egiazkoa dena: legelarioi gero eta zailago egingo zaigu gure etxeko lurralde txikikoan atearik itxita bizitzea. Lehenengo eta behin, Europak eginkizun legegile garrantzitsua duelako dagoeneko; eta, bigarrenik, Europako beste herri batzuekin gero eta harreman pertsonal, merkataritza-harreman eta industria-harreman gehiago izango ditugulako, eta, horien ondorioz, Europako arautegia aplikatu beharko dugulako gure arazoetatik asko konpontzeko.

Konstituzioa onetsi zein onetsi ez, Europako Erkidegorantz doan bidea geraezina da. Proiektuaren I-1. artikulua dioenez, Konstituzioak sorburu du “Europako herritarrek eta estatuak etorkizuna elkarrekin eraikitzearen duten borondatea”. Etorkizuna elkarrekin eraikitzeak esan nahi du, batez ere, etorkizun baketsua erdiestea; esan nahi du, orobat, gure iraganeko zatirik lotsagarrienei agur esatea, etengabeko gatazka eta gerrak bukaraziz, horiek arrazakeriazko nazionalismo-formak eragin baitituzte, elkartzuta egonda bakarrik gaindi daitezkeenak.

Etorkizuna elkarrekin eraikitzeak esan nahi du, bestalde, balio zehatz batzuk Europako lurralde osoan gauzatzeko ahaleginak egitea. Arian ere, azken gizaldeetan, balio horiek izan dira Europako ideien gidari; proiektuaren atarikoak adierazten duen moduan, “Europaren oinordekotza kulturazko, erlijiozko eta humanistikoen goi-eraginez” garatu dira balio horiek. Ezin ahantz daitezke, atarikoak berak dioenez, “gizakiaren eskubide urraezin eta utziezinak, demokrazia, berdintasuna, askatasuna eta zuzenbide-estatua bezalako balio unibertsalak”.

Egiantan, balio unibertsalak dira horiek. Gainera, Europako kulturaren hainbat mende islatzen dira balioetan. Eta Europan bakarrik, hamaikatxo ahalegin egin da balio horiek egiazko errealitate bihurtzeko. Izan ere, europarrak izan ziren, II Mundu Gerra bukatu eta gero Eskubideen Adierazpen Unibertsala prestatu zutenak. Are gehiago, eskubideen formulazio teorikoarekin asegabe geratu zirenez gero, europarrak berriro elkartzu ziren 1950. urtean, giza eskubideak errespetatuak izan zitezkeen. Horren ondorenez, Estrasburgoko Auzitegia sortu zuten, atxikitako herri guztie-

tan eskubideok urratzen zirenerako, hori pertsegitu ahal izateko. Europarrak izan ziren, halaber, heriotza-zigorra kondenatuz lehenengo adierazpena egin zutenak.

Egia da, era berean ere, Europa merkatu handi bat bezala jaio zela. Alabaina, hori ez da jatorrizko akats gaindiezina. Esparru ekonomikoan aurrera egiteak berarekin ekarri du herri sortzaileek parekorik ez duen aurrerakada izatea. Aurrerakada hori izan ezean, hurrengoko pausoak ezinezko gertatuko ziren. Giza eskubideak aipatu ditugu, eta horiei buruz ari da, hain zuzen ere, Konstituzioaren bigarren zatia. Zernahi gisaz, Erkidegoak, Europako Merkatuak, eta, gaur egun, Europar Batasunak, argi eta garbi adierazi dute honako hau: gizarte-justiziak eskubideok errespetatu behar ditu, eta hori ezin da ezerezean geratu; baina ahaleginak egin behar dira, horrekin batera, garapen iraunkorrari eusteko eta gutxieneko ongizate-maila ziurtatzeko. Labur-zurrean esanda, oinarri zehatzak finkatu behar dira, Europa baketsua lortzeko.

Hori ez da utopia; ez da lurrean paradisua ezartzea. Zinez, Europar Batasunarekin ez dira gure arazo guztiak bukatuko. Edonola ere, kontuan izan behar da garai batean europarrek arerio ikusten zutela elkar, lagun baino gehiago. Gaur egun, ordea, Europar Batasunak elkarrekin eta elkertasunez lan egiteko deia egiten digu, eta eginkizun horretan erabakigarria da legelarien jarduna. Zuzenbidearen mundua alde batera utziz gero, ezin da bakea eraiki, ezta justizia ere.

Ezin dizkiogu begiak itxi itxaropenezko egoera honi. Horregatik, Akademiak iragarri nahi du eskura dituen baliabide guztiekin sustatuko duela Europako zuzenbidea eta bertako erakundeak ezagutaraztea. Euskal Herriko industria eta portuak betidanik egon dira munduari zabalik, eta gure arbasorik prestuenek berebiziko ahaleginak egin zituzten Europara hurbiltzeko. *Gutako askok ezin dugu ahaztu José Miguel Azaola jauna. Horrek "paneuropar"tzat jo zuen bere burua, hogeigarren mendeko hogeita hamargarren hamarkadan batxilergoa amaitu eta gero. Harrezkero, bere bizitzaren urterik onenak eman zituen ideia*

*hori lantzen. Haren eraginez, gutako askok maite dugu Europa
elkartu eta baketsuaren ideia.*

Zuzendaritza Batzordea